

111. zk.
2002ko martxoa



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Frankeo itundua 48/27

TAU
CERÁMICA

GAMESA. ORGANOAK. AZKENA-GASTEIZ

Fundación Sánchez de Sabio Fundazioa

HARPIDEDUN ETA IRAKURLEENTZAKO OHARTXOA

“Aldizkari honek publizitate gehiegi du” iritziaren inguruan:

Inoiz iritzi hau jaso edo entzun dugu Geu aldizkariaren inguruan, eta batzuetan hau izan da harpidedun bat edo bestek baja emateko emandako arrazoia eta argudioa... Honen aurrean azalpento bat zuei helaraztea komeni zela iruditzen zaigu: PUBLIZITATEA EZINBESTEKOA DA PROIEKTUARI EUSTEKO, ETA GAINERA, GUREAN AGERTZEN DEN PUBLIZITATEA ORO HAR EUSKARA BULTZATU ETA INDARTZEA HELBURU DUEN PUBLIZITATEA DA.

Aldizkariaren urte osoko derrigorrezko irteerei aurre egiteko gutxieneko aurrekontua gutxi gora-behera 65.000.- eurokoa da (10.800.000.- pezeta), eta aurrekontu xumea da, eta aurreikusita dauzkagun sarrerekin ez gara heltzen hori guztia kubritzera, baldin eta ez baditugu gure sarrera propioak igotzen, eta gure sarrera propioak publizitate eta harpidetzak dira. Hau dela eta buru-belarri dihardugu bai harpidedun berriak bai publizitate bezero berriak lortzen saiatzen.

Dirulaguntzak txikiak dira, eta azken urteotan hau asko nabaritu da, urte bakoitzean orotara 1.500.000.- peze-ta gutxiago eskuratzen direla proiekturako lehen eskuratzen zenarekin alderatuta. Hauek dira 2001ean erakunde publikoen aldetik Geu aldizkariak izan dituen dirulaguntzen kopuru zehatzak:

- Eusko Jaurlaritza: **1.170.000.- pta.**
- Foru Aldundia: **595.000.- pta.**
- Gasteizko Udala: epeen kontu bat dela eta, dirulaguntza gabe gelditu ginen, hortaz, **0.- pta.** Halere, orotara Udalak ematen duen dirulaguntza **200.000.- pezetakoa** da urte osorako.
- Bai Udalak bai Foru Aldundiak lehen txertatu ohi zuten publizitatea egun ez dago, hots, **ez dute publizitaterik tartekatzen.**

Hutsune hauek guztiak derrigorrez bete behar ditugu egitasmoari eusteko, eta zerekin ordezkari daitezke? Sarrera propioak indartzen, handitzen. Eta zeintzuk dira Geu aldizkariak dituen bideak sarrera propioak indartzeko? **Harpidetza eta Publizitatea**, jakina. Aldizkariak dakartzan gastu guztiak ordaindu behar dira egunero ogia, barazkiak, fruta, esnea, arraina, haragia, arraultzak, ... ordaintzen diren bezala, eta ez gatzazkizue ari kabiarrez, angulez, otarrainez, erreserbako ardoaz, ez..., ezinbesteko gastuez ari gatzazkizue!!! inprenta (inprentarako bakarrik minimo-minimo 3.000.000.- pta. (18.050.- euro) behar: 36 orrialde, zuri-beltzez), banaketa -aurten banaketa gastua izugarri igo da-, telefonoa, langile eta kolaboratzaileak, materiala...

Bestetik, aldizkarian ere bi erakunde pribaturen logoak ere ikus daitezke: Eroski Fundazioak urte osorako 250.000.- pta. (1502.- euro) ematen digu, eta Euskadiko Kutxak 200.000.- (1202.- euro); gero beste 100.000.- (601.- euro) Elkarterako. Kopuru hauek ere ez dira batere altuak baina bai oso garrantzitsuak gure proiekturako, hortaz, hemendik eskertzen diegu emandako laguntza, txikia bada ere.

Beraz, ongi etorriak HARPIDEDUN BERRIAK eta PUBLIZITATE BEZERO BERRIAK. BAI HARPIDEDUN BAKOITZAK ORDAINTZEN DUEN **URTE OSOKO 15 euroko (1,25 euro hilean) KUOTAREN BIDEZ BAI BAI BEZERO BAKOITZAK TXERTATU OHI DUEN IRAGARKIAREN BIDEZ ZUEN TANTA JARTZEN DUZUE GASTEIZEN EUSKARA BULTZATU ETA INDARTZEKO. HORI DA GARRANTZITSUENA!!!**

Nahi genuke bai orrialde gehiago ateratzea, aldizkarian kolorea sartzea -aldizkaria kolorez-salneurria: ia 400.000.- pta. (2405.- euro) hilero-, gauza berriak eskaintzea, ideia berriak martxan jartzea..., baina hori egun ezin dezakegu eskaini, ezinezkoa da, eta momentuz egun eskaini daitekeenaren kalitatea hobetzea da gure helburua. Ahal dugun guztia jartzen ari gara egitasmo honetan, batzuetan hobeto bestetan okerrago eta garbi izanda beti hobetu daitekeela, baina betiere ilusio handiz eta kalitatezko produktu bat eskaintzea helburu dugularik.

Honexegatik guztiagatik zuei guztioi, harpidedun eta bezero, mila esker gure artean izateagatik, eta gogoan izan gauzak ez direla kanpotik ikusten diren bezain errazak... Gu buru-belarri lanean dihardugu denoi geroztik eta aldizkari hobea eskaintzeko, **MEREZI DUZUELAKO, EUSKARAK MEREZI DUELAKO ETA GASTEIZEK ETA ARABAK MEREZI DUTELAKO!**

GUZTIOI ESKERRIK ASKO!

GEU ALDIZKARIKO BATZORDEA

111 zk. 2002ko martxoa

4-6. ORR.:

ZIZKA-MIZKAK. HILEKO GAIA: ARABAKO
BERTSOLARI TXAPELKETA

7. ORR:

GEUgune

9. ORR:

ARABA EUSKARAZ-2002

10-11. ORR.:

ELKARLANEAN LEHIAKETA
LITERATURA. MUSIKA

13-16. ORR.:

DUSKO IVANOVIC

17. ORR.:

KOZKORTUZ

18-19. ORR.:

IHAUTERIEI SO EGINEZ

21-23. ORR.:

GAMESAKO GATAZKA, ATZOKOA&GAURKOA?

24-25. ORR.:

ARABAKO ORGANOAK-FLOREN UNZUETA

27-29. ORR.:

AZKENA-GASTEIZ ARETOA

31. ORR.:

GEU ALDIZKARIAREN ETXEZ ETXEKO
HARPIDETZA KANPAINA

32-33. ORR.:

ZEUK AUKERATU!

Euskalgune

34. ORR.:

TINK (Iñigo Sarasolaren komikia)



4. ORR.



13-16. ORR.



18-19. ORR.



27-29. ORR.



GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es



Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Aldizkariako batzordea: Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Ederne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Ederne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. Testuen orrazketa-zuzenketak: E.B. Maketa: Dalvez. Marrazkiak eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Ernesto Murillo 'Simonides'. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorrakin. Publizitatea eta Banaketa: Ederne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Ederne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikizunak.



Eusko Jaurlaritzako
Kulturako Saila



OHARRA: OTSAILEKO ALEAN (110/2) AKATS BAT IZAN
GENUEN TOKI EDER IKASTOLAREN
IRAGARKIAREN IZEN-EMATEARI ZEGOKION
EPEAREKIN. BERAZ, HONA HEMEN EPE
EGOKIA (ETA BARKA ITZAZUE ERAGOZPENAK):
OTSAILAREN 18tik MARTXOAREN 1era

Martxoak 8. ZORIONAK EMAKUMEI Martxoak 3 GOGOAN...

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA Hileko gaia

ZAZPIGARREN ALABA KOXKORTZEN ARI DA

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Peñagarikano, Xabier Xilbeira, Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Jon Maia, Oihane Perea, Asier Otamendi, Ricardo Gnlz. de Durana, Zigor Enbeita, Ruben Sanchez,... baina,... nola, azkeneko izen hauek ez zaizkizuela ezagunak egiten? Zuen garunetan oihartzuna besterik ez direla? Irakurle lerden eta eztiok, adi-adi irakurri eta zorroztu zuen belarriak, Arabako Bertsolari Txapelketa abian dago eta!!!!

80. hamarkadara arte Arabak ez zuen sekula entzun doinu neurtu eta errimaturik (Aramaion salbu) 1982ko irailean Arabako Bertso Eskola sortu zen arte. Abel Enbeita izan zen gure lehenengo koblakariaren irakasle, hitzak airean jarri nahian dantza elkarte batean bildu zale ziren. Handik bi urtera, 1984an alegia, prest zeuden ikasi zutena praktikan jartzeko eta lehenengo txapelketan parte hartzeko. Geroztik bertso eskolek eta saio informalek kantuan jarraitu bazuten ere, 1990. urtera arte ez zen martxan jarri urterik urte eta gaur egunera arte Araban ibilian ibili den San Prudentzio sariketa. Bestetik, Bizkaitarrek buruaski izaten ikasi zuten arte, Araba-Bizkaiko txapelketa zen garrantzia edo ofizialtasuna zuena. Gerora, ordea, San Prudentziok hartu zuen ofizial kargua. (Besarkada bat bizkaitarrei, maj@s).



Arabako bertsolariak hitzarekin jolasean

Aipatu beharrekoa ere bada euskararen berreskurapen prozesuari esker bertsolaritzak aparra bezala egin duela gora (eskerrak mozkor gutxi dagoen, bestela kolpetik edango gintuzketen) eta noski, bertsolaritzaren berreskurapen prozesuari esker euskarak ere apartsu dirau.

Azkeneko hiru urteetan San Prudentzio sariketa duin bat egitera iritsi izan da, konplexuak konplexu eta egoerak egoera daukatenarekin harro daudelako eta lanari gogor ekin diotelako. Errealitatea naturarekin gero eta lotuago dago; hazia landatu eta fruitua lortu. Izan ere, hainbat herritan landatutakoak bere sagar, madari eta zergatik ez, bertsolariak eman dizkigu. Horregatik, eta inoiz baino bertsozaleago sentitzen direnez apustu gogor bat egin diote haien buruari eta baita geure belarriei ere, apustua arabar guztiek eta Euskal Herri osoak egin baitu. Jaun-andreok, neska-mutilok, Arabako bertso eskolak Principal Antzokira egin du salto musikal berria estreinatu asmoz: **Arabako Bertsolari Txapelketa**.

Apustu berri honek barne dinamikaren koordinazio berritzaileagoa eta kanpora begirako lan handiagoa eskatu dizkio Bertso Elkarteari. Hau dela eta, bai institutu, euskaltegi zein beste leku askotan girotze saioak eta saio didaktikoak antolatu dituzte; komunikabideen munduan ere modu zabalagoan landu da (GEUre txokotxo hau lekuko). Honen bidez Arabako Bertsolari Txapelketari jarraipen handiagoa ematea lortu nahi da.

Bukatzeko, eta lan gogor honen erakusle, jakin ezazue Arabako Bertso Eskolak Canal Gasteiz-en ere bere pipitatxoa landatu duela HITZAREKIN JOLASEAN programarekin, asteartero 22:30etan emititzen dena.

KANPORAKETAK

- **Martxoaren 9an**, 19.00etan **Laudion**, Udaletxeko Mintza aretoan: Irati Anda, Zigor Enbeita, Inaki Viñaspre, Andere Arriolabengoa, Ekaitz Elorriaga, Lierni Altuna
- **Martxoaren 23an**, 19.00etan **Lapuebla Labarkan**, Assa ikastolako ekitaldi aretoan: Manez Agirre, Rikardo Gonzalez de Durana, Karla Santisteban, Alberto Martinez "Beitto", Ane Zelaia, Olatz Perea

FINAL-AURREKOAK

- **Apirilaren 13an**, 19.00etan **Aramaio**ko kultur etxean: Ruben Sanchez, Asier Otamendi, + kanporaketetatik sailkatutako lau
- **Apirilaren 20an**, 19.00etan **Araia**ko Zineman: Oihane Perea, Juan Mari Juaristi, + kanporaketetatik sailkatutako lau



Arabako bertsolari gazteak 98ko eskolartekoan

FINALA

Maiatzaren 11n
19.00etan
Gasteizko
Principal Antzokian

Testua eta argazkiak: Arabako Bertsolari Eskola

araba bixotzian



gastelZkinak



ikusi-makusi

GAZTETXEA, IRATXOON ETXEA:
 "...Iratxook bat egin dugu Etxe
 Sorginduarekin, Gasteizko Gaztetxearekin.
 Bere mezua gurea egin dugu. Guztiok dugu
 zer esana eta zer egina. Eta guk, Gaizkiaren
 kontrako borroka erabakigarri honetan,
 naturarekin jolasean mendeetan ikasitakoa
 aportatuko dugu: irudimena, alaitasuna,...
 bidegabekerien aurkako borrokarako
 grina..., eta magia pixkatxo bat. Eman zuk
 zurea!" (Iratxoen Asanbladak Gasteizko
 Gaztetxera igorritako testua).

**MARTXOAREN 23an GAZTETXEAREN
 ALDEKO MANIFESTAPENA**

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



12A 02/02



Otsaila. Valderejo. Negu gorrian. Harkaitzetatik janaren bila sai arreak (*Gyps fulvus*) ateratzen dira.
 Batzuk, hala ere, habietan etzanda gelditu dira. Zer gordetzen dute hain mimo handiz?
 Alajaina! Ondorengoaren hazia!

Hemendik aurrera atal hau finkoa izango da gure orrietan: zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala...? **HEMEN DUZUE EUSKARAZ EGITEKO AUKERA!!!**
(Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez)

GEU AZOKA

• SALMENTAK-ALOKAIRUAK

Etxe bat salgai. 3 logela, 2 egongela (behekosu bana), sukaldea, komuna. Garaje-tailerra. 2800 metro karratuko lur-saila. Telefonoa. Lorategia. Oleta (Araba), Gasteiztik 27 km; Otxandiotik 3 km. Leku zoragarria, Urkiolako Parke Naturaletik oso gertu. Anboto eta Orisolpean. 27 milioi pta. Dei 945 263 119 edo igorri mezua daviesti@inicia.es posta elektroniko helbidera.

IMAR gurdi-denda salgai: Haurrak gazte bihurtu eta besterik ez ekartzea erabaki dugu-nez, **oso egoera onean** dagoen eta bospasei aldiz soilik erabilia izan den gurdi-denda bat saldu nahi dugu. Hauexek dira bere **ezaugarriak**: bi personentzako (haurrak izanez gero gehiago) bi gela ditu, atari handi bat, eta ondoan beste bat (aurrekoa bezain handia) gehi daiteke era errazean. Gurdiarekin batera **kutxatzar** handi eta berri bat doa. Guzti honengatik **1.200 euro** eskatzen ditugu. Informazio gehiago nahi baduzu dei ezazu tfno. honetara 945-26 41 21

• UMEAK-ETXEKO LANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANAK...

*22 urteko gazte batek **lan egingo luke** asteburuetan. 945 25 13 39 (Josu).

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsalde, gauez, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

EGUN OSOZ • GOIZEZ • ARRATSALDEZ • GAUEZ • ASTEBURUAK

• **Mintzalaguna egitasmoa bueltan da!** urte berriarekin ekintza eta proposamen berriak! Euskaraz hitz egin, jende berria ezagutu, ondo pasatu nahi duzula? Deitu Elkartera (Josunez galdetu) eta aukera izango duzu! Astindu lotsa eta deitu 945222153 telefono zenbakira (zenbat eta lagun gehiago, orduan eta talde desberdinak egiteko aukera gehiago).

• **Elkartea, beste hainbat ekimenen artean, Gasteizerako Euskara Plan** orokorraren inguruan ere lanean ari da beste euskaltzale askorekin. Printzipioz, honetan lan egiten ari diren lagunek ez dute elkarterik ordezkatzeko, beraz, bilera guztiak euskaldun eta euskaltzale orori daude irekita. Interesatuta bazaude parte hartzeko aukera daukazu (deitu Elkartera bileren eguna jakiteko).

KULTUR ERROTA-02

(GEU elkartearen eskutik)

MARTXOAREN 26an, asteartea,
20.30etan

PARRALEN

"EUSKARAZ

DIBERTITZEKO
MANERAK"

KIKE AMUNARRIZ eta
ASISKO URMENETA

GEUREKIN MENDIRA

MARTXOKO IRTEERA
UREDERRA

MARTXOAREN 17an

IRTEERA: goizeko 9.00etan,
Txapela tabernaren aurretik
(Prado kalean)
GOIZEKO IRTEERA da.

Informazio gehiago:
Inaki, 656 731 600

GEU elkartearen posta elektronikoa:
geuelkartea@grn.es
Gogoratu aldizkariarena:
geugaste@grn.es

GEU-AGENDAK-02
SALGAI!!! 12, 02 EURO
DEITU LEHENBAILEHEN:
945 22 21 53



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

K U L K I

www.kulki.org




GORETTI ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**IZARRA
TABERNA**

Egueditan, astalehenetik ostalera

**JANTOKI
BEGETARIANOA**

SAN FRANTZISKO XABIERKOAKEN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 68 33



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

azkarprint
Imprenta / Inprimategia

Helbide berria...

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA


Aditurik onenek eta azken-azkenengo
teknologiak bakarrik berma dezakete
ongi egindako lana. Zerbitzu osoa,
norberaren neurria, hurbila eta saiataua.

Horixe duzu gure
konpromisoa.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



**MARTXOAREN 22an,
OSTIRALA**

Arratsaldeko 6.30etan

Armentia Ikastolan

AZIKA TALDEA **“KONTU KANTA ZAN”**

SARRERAK ARMENTIA IKASTOLAN SALGAI
(aurreko astean, 17.00etatik 18.00etara, 3 eurotan)

GEUK 5 SARRERA OPARITZEN DITU.
DEITU LEHENBAILEHEN!

LAGUNTZAILEAK
GEU elkartea-GEU aldizkaria

ARABA EUSKARAZ
2002-k antolatutako

KULTUR ERROTA



ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN ESKUTIK...

baina bihotzak dio

Izenburua: Baina bihotzak dio

Egilea: Xabier Montoia

Bilduma: Literatura 217

Orriak: 324

Salneurria: 17,50 euro

Data: 2002ko otsaila



ELKARLANEAN



Ipuin-liburu bat da Baina bihotzak dio, Xabier Montoiaren hirugarren ipuin-bilduma, Emakume biboteduna eta Gasteizko hondartzak ospetsuekin batera nortasunez eta kalitatez nabarmentzen den obra burutzen duena. Hamahiru istorio dira, ipuin luzearen eta nobela laburraren artean dauden hamahiru zauri bezala, munduko lau bazterretako larru-azala urratzen dutenak. Izan ere, izenburuak iradokitzen duenez, Lurreko edozein txokotatik Euskal Herrira itzuli nahian dabilta bertako pertsonajeak, horrexek ematen dio batasuna bildumari.

Herrialdez herrialde mugituko gara liburuan zehar, eta harrituta gera gaitezke nolako zehaztasun eta sinesgarritasunez dauden eraikiak planetako zokorik urrunenetan kokaturiko istorioak. Harrigarriagoa da, hala ere, giza geografian barrena egindako bidaia: Londres aupa-pair doan ezpeletarra, Indian neba jonkiaren bila dabilen audioarra, K-2ra igo nahi duen mendizale nafarra, Afrikako portu batean dagoen marinel bizkaitarra... Gizon-emakume gazte eta sasoiko, haurrak nahiz zaharrak ditugu istorio hauetako protagonistak, sentimendu kontrajarrien tentsiopean bizi direnak: traizioa eta leialtasuna, bikoteen eguneroko ohikeria edo amodio debekatuak, besteak beste. Kontakizun aberatsak bezain pertsonaje konplexuak, baina azken batean, bihotz barrura begiratzuz gero, geure arimaz mintzo direnak.



Xabier Montoia musikari eta idazle gasteiztarak euskal poesiari berritu eder bat eman zion 80ko hamarkadako bere hiru liburuekin: Anfetamiña (1983), Likantropo (1985), Narrastien mintzoa (1988). Geroztik kontagintza landu du, eta liburu hauek argitaratu: Non dago Stalin? (1991), Emakume biboteduna (1992), Gasteizko hondartzak (1997), Plastikozko loreak erregearentzat (1998), Hezur gabeko hilak (1999).

**MARTXOKO
ELKARLANEAN
LEHIAKETA**

GALDERA:
XABIER MONTOIA GEU ALDIZKARIAN ELKARRIZKETATU GENUEN.
ZEIN ALETAN IZAN ZEN?

**BIDALI ERANTZUNA
POSTAZ EDO E-POSTAZ,
eta ZORTE ON!**

**OTSAILEKO LEHIAKETAREN
GALDERA:**
"HAIZEA NORA, ZAPIAK HARA"
ESAERA ZAHARRAK ZER ESAN
NAHI DU?


ERANTZUNA:
"Zer komeni den, hori egiten
dela (edo modaren arabera
jokatzen dugula)"/ "Egoeraren
arabera iritiz edo pentsamoldez
aldatzen denean"

HARPIDEDUN IRABAZLEA:
TXIPI ORMAETXEA
Zuretzat MARIASUN LANDA-
REN "GALTZERDI SUIZIDA"

ZORIONAK!**IRUSTA****poteo eta pintxoak****ESPEZIALITATEA:****Patata tortila • Otartekoak****TABERNA**

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33

GASTEIZ**LA RIOJANA**
*jatetxea***on egin!**

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ



Errege atea, 9 • GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

EMAKUMEAK VITORIA-GASTEIZEN MENDEETAN ZEHAR

Izenburua: Emakumeak Vitoria-Gasteizen mendeetan zehar. Ibilbideak eta biografiak
 Egileak: Paloma Manzanos Arreal eta Francisca Vives Casas
 Orriak: 207 - Salneurria: 9,61 euro
 Data: 2001eko azaroa
 Argitaletxea: Gasteizko Udala eta Eusko Ikaskuntza. Euskaraz eta gaztelaraz argitaratu dute



Edurne Begiristain

Liburu honek Gasteizen mendeetan zehar izan diren emakumei buruzko lehen azterlan bat izan nahi du. Liburuko lehen zatian, hariaren gidariak betiere emakumeak direla, hirian barrena egindako zortzi ibilbide tematiko aurkezten dira (kultura eta hezkuntza, lana, boterea, bisitari ospetsuak, ongizatea eta erlijio-bizimodua, haustea, mezenasgoa eta gaur egungo emakumeak). Bigarren zatia, Erdi Aroaz geroztik XIX. mendearen lehen hamarraldiak arte, Gasteizen jaio, bizi edo bisitan etorri, zein bere garaian, bizitzaren edozein alderditan nabarmendu ziren 140 emakumeren eta emakumei loturiko erakundeen hiztegi biografikoak osatzen du.

Liburu honen egileak Francisca Vives Casas eta Paloma Manzanos Arreal dira, biak Geografia eta Historian lizentziadunak. Franciscak argitaratutako lanen artean, aipatzekoak dira Academia de Bellas Artes de Vitoria (1818-1889) eta La enseñanza artística de la mujer en Vitoria en el siglo XIX. Palomak, berriz, bereziki gai hauek landu ditu bere ikerlanetan: Gasteizko eskulangileak XVII. mendean, Gasteizko bizimodu materiala Aro Berrian eta emakumearen historia. Argitaratutako lanei dagokienez, Historia de Vitoria eta La mujer y el mundo del trabajo en la Vitoria del siglo XVII dira aipagarrienak.

ARDIAK ZENBATZEN LORIK HARTZEN EZ BADUZU...

Izenburua: Ardiak zenbatzen lorik hartzen ez baduzu...
 Egilea: Javier Ignacio Arnal Gil, "Txabi"
 Orriak: 64 orrialde
 Salneurria: 6,87 euro
 Argitaletxea: Ibaizabal. Matxinsalto bilduma
 Data: 2001



Edurne Begiristain

Ardiak zenbatzen lorik hartzen ez baduzu... Txabi Arnal Gilek idatzitako liburu berria da. Ipuina izateaz gain, jostailu bat da, joko bat, hitzekin, esaldiekin, bertsoekin eta ipuinarekin berarekin jolasteko era bat. Txabi Arnalek dioskunez, "liburu honek hainbat gauza ezberdin egiteko balio du! Hain ezuste handiak topatuko dituzue bertan!". Txabik bere liburuaren definizioa ere egin digu: "ohera joateko lagun bat, egoera harrigarri pila, irakurle berrientzako abentura bat, gurasoekin eta baita anai-arreba nagusiekin ere konpartitzeko liburu bat, imaginatzeko ipuin bat, gaua argitzeko era bat, linterna piztuta izaren azpian edota ilargiari begira irakurtzeko zortzi kapitulu...". Egilea ziur dago ipuin hau irakurtzen "primeran" pasatuko dugula.

Txabi Arnal, egun, Haur Hezkuntzako irakaslea da Gasteizen. OHOKo irakasle diplomatua, Geografia eta Historian lizentziatua eta Irakaslearen Unibertsitate Tituladuna da. Ermuan (Bizkaia) jaio zen, baina hamazazpi urte daramatza Gasteizen bizitzen. Liburu hau berak idatzitako zaspigarrena da. Besteak beste, hauek dira argitaratu dituen liburuetako batzuk: Hogeitabost ipuin motz (1998), Marixa Poetisa (1999) eta Harri harrigarria (2000).

Txuma Murugarren



TXUMA MURUGARREN: hegazkinen arima (Gaztelupeko Hotsak)

Txuma Murugarren garaiz hasi zen musika munduan, folk-rock estiloko taldeetan eta performanceak eginez. Ondoren, Sasoi Ilunak taldea sortu eta hiru disko grabatu zituen. Txuma euskal rockean beharbada ongien gordetako sekretua izan da orain arte.

Sasoi Ilunak taldearen buru bezala hiru disko eta bakarka beste grabazio bat kaleratu ondoren, bere sekretua aditzera ematea erabaki du: Hegazkinen arima. Txuma lan honetan musikari bereziekin elkartu da eta elkarri atera diote probetxurik onena. Bai grabazio estudioan eta bai zuzenean.

"Hegazkinen arima" pisu handiko abestiz osaturiko lana da. Txuma bera azaltzen duen diskoa da, eta rocka hizpide duela bere burua berresten du honen bidez.

Letra aldetik beti bezain eder, poeta; bestetik, Rafa Ruedak ekoizle gisa eginiko lana indar handikoa da. Rocka aipatu dugu, eta bai, Hegazkinen arima rock diskoa da. Txuma ez da ohiko kantautore bat. Neil Young aipatzen dugunean inork ez du kantautore moduan aurkezten, Van Morrison irlandarra bakarlarri gisa agertzeak ez dio izate hori ematen, eta hortxe daude Tom Waits bera, berekoi duen pianoarekin agertu arren inoiz ez luke kantautore izan nahiko, edota Jeff Buckley, Nick Cave, ...asko dira

Honenbestez, elementu ugari geratu dira bistan eta entzuleen gozamenerako: akustikotasuna, kontrasteak, samurtasuna, popa, udaberria, haize epela, saudadea, dotoretasuna, oroitzapenak, gitarra gordinak, ... guztiak sentimenduen rockaren zerbitzuan.

• **zuzenean** • Txuma Murugarren: ahotsa, gitarra akustikoa eta elektrikoa
 Rafa Rueda: gitarra elektrikoa eta koroak • Carlos Solano: baxu elektrikoa eta kontrabaxua
 Arturo García: bateria • Iban Mella: teklatuak



"HITZAK EGIN GAITU" BIDEOA

AEK-k, ETBren batera eta Bertsozale Elkartearen laguntzaz, atera duen bideoa dugu honakoa. Jakina denez, KORRIKA 12k BERTSOLARITZA omendu zuen. Omenaldi horren atal garrantzitsua izan zen, Koldo Izagirreraren gidoiari jarraituz eta Eneko Olasagastiren zuzendaritzapean, Kursalen egindako "HITZAK EGIN GAITU" ikuskizuna.

Bideo honek ikuskizun hura jasotzen du osorik. Bertan bertsolaritzaren garai esanguratsuenen zenbait pasarte irudikatzen dira. Ekitaldian irudiak, musika, testuak eta, nola ez, bertsoak tartekatzen dira, gaurko bertsolarien bertsoekin batera. Ordu eta erdiko saioan, 30 bertsolari, dantzariak, aktoreak, irudiak...

Aukera paregabea duzu orain, bada, dokumentu interesgarri honetaz gozatzeko, zure etxean, eskolan, tabernan... bertan ikusi ala berrikusi ahal izateko.

*Bideoaren salneurria: 15 euro. Etxean, eskolan, tabernan, euskaltegian, kultur etxeko liburutegian... jaso nahi izanez gero, bidalketa gastuak gehitu (1, 50 euro).

INFORMAZIOA: 94 415 95 12

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



JANTZI
ETA
OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

Garagardotegia

Ostiraletik
Igandera
IREKITA
(astelehenetik
ostegunera
itxita)

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kontoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59



DUSKU

VANOVIC

DUSKO
IVANOVIC

***“NIRE
BIHOTZEAN
IZANGO DA TAU
BIZITZA OSORAKO”***

IBILBIDEA

Neurri handiko gizona dugu Dusko Ivanovic. 1957.eko irailaren 1ean Montenegron jaioa, 1,95 metroko serviar honek ia 25 urte eman ditu zenbait herritako saskibaloiko talde ezberdinetan jokalaria lanean (Jugoslavia, Suitza, Frantzia, Estatu Espainarra...). Ondoren, Valvi Girona-n 2. entrenatzaile lanari ekin zion, eta hainbat taldetan egon ostean egun Gasteizen dugu. "Europako bi kopa, Jugoslaviako 3 liga eta bi kopa... irabazi nituen...; dena den, jokalaria egin dudana ibilbidea kontatzen hasiko banintz...". Zalantzarik ez dugu, ba, Ivanovicen ibilbidea luzeaz gain sakona eta aberasgarria oso izan dena; frogar, egun Tau-Baskoniak kantxan eskaintzen dituen joko eta emaitza onak.

IVANOVIC EGUN

Baskonia taldearen buru Ivanovicen bigarren denboraldia da, eta taldearen entrenatzaile legez aurkeztu zeneko lehen egunean bezala, Duskori izaera gogorra eta serioa egokitu zaio, hedabide eta afizioaren iritziz. "Pentsatzen dut nik nire jokalariei eskatzen diedana ez dela asko, baizik eta behar dena". Taldearen aurrean bere burua profesional gisa aurkezten duen gizona baino ez da Dusko. "Mundu guztia bezalakoa naiz, lanean nagoenean izan ezik; niretzat oso lan serioa da eta nik lana ondo egiteko serio egon behar dut, hortik kanpo gainontzeko pertsonak bezalakoa naiz, baina lanean beste edozertarako denborarik ez dut".

"Gasteizen etxean"

Josune Velez de Mendizabal

-GASTEIZKO SASKIBALOI TALDEA ENTRENATZERA ETORRI BAINO LEHEN EUSKAL HERRIA EZAGUTZEN ZENUEN?

-Bai, hemen bi edo hiru bider egonda nintzen jokalaria bezala. Orduan ere euskal janaria dastatzeko aukera izan nuen... Benetan ona euskal sukaldaritza!

-BAINA EZ DA GAUZA BERA BISITAN ETORTZEA EDOTA ORAIN BEZALA BERTAN BIZITZEN EGOTEA...

-Egia da ez dela gauza bera, begi desberdinez ikusten baituzu bisitan zatozenean edota adiskideak bertan dituzunean, barnean zaudenean alegia, eta une honetan Gasteizen etxean bezala sentitzen naiz.

-BADIRA HORTIK SERIO ETA HOTZAK GARELA DIOTEN BETIKO KRITIKAK, TOPIKOAK... NOLA DEFINITUKO GINTUZKEZU EUSKALDUNOK?

-Hori esan dezakete bisitan datozen pertsonak, euskaldunak benetan ezagutzen ez dituztenek; ni Katalunian bizi izan nintzen eta bertako biztanleei buruzko aurreiritziak ere entzunak

nituen..., baina bai bertan bai hementxe oso ondo pasatu ohi dut eta jendea oso irekia da, adiskide ugari ditut eta ez nator bat iritzi horiekin.

-GASTEIZEN EUSKARAZ ENTZUN BAI?

-Bai, bai noski.

-ETA NOLA EGITEN DIO BELARRIARI?

-Beno, nik 3-4 hizkuntza hitz egiten ditut eta orduan soinuagatik jakin dezaket zein den bat edo beste..., halere euskarak antzekotasunik ez dauka gainontzeko europar hizkuntzekin, eta aritu naiz sustraiaren jatorriaren inguruan ikertzen, baina egia esateko inork ez dit zehaztasunez erantzun..., hungarierarekin erlazioa daukala ere entzuna dut baina ez dago ziurtatzen didanik...

-HIRU-LAU HIZKUNTZA..., EZER GUTXI! HIZTEGIA BESAPEAN DUELA JAIOTZEN AL DA BALKANETAKO JENDEA?

-Batek atzerrian bizitzea erabakitzen duenean hizkuntzak ikasteko beharra dauka..., frantsesa, espainiarra eta dene-tik ikasi behar da.

-BERAZ, EUSKARA IKASTEKO ASMORIK?

-Ikastea gustatuko litzaidake, hizkuntza gehiago ikastea gogoko dut, nire seme-



GASTEIZ, ZALETASUN HANDIKO HIRIA

Kirol mailan gogortsu gabiltza gasteiztarrok, zesta-puntan, gimnasia eta txirrindularitzan, besteak beste, ordezkari finak ditugu, baina kirolen artean oihartzun handiena saskibaloia eta futbolak eramaten ez dutenik ezin esan; Alaves eta Baskoniarekin ere, beraz, harro arabarrok. "Batuetan Alavesa ikusten dut eta ulertzen dudanagatik Alavesek aurten ezezik iaz ere ibilbide handia egin zuen, oso talde garrantzitsua da...", dio Ivanovicek. Bestetik, saskibaloia futbolaren pare badago ere, ezin konparatu gizonetzkoen saskibaloia eta emakumezkoena: "egia esateko, ez dut astirik izaten emakumezkoen saskibaloia ikusteko; jakin badakit Gasteizen ekipo on bat dagoela eta zaletasun handia lor dezakeen kirola izan daitekeela, izan ere, Jugoslavian selekzioa baitago...".

Eta zaletasunari ekinez, Ivanovicen iritziz Gasteizen saskibaloia lotutako tradizio handia antzematen da, "hiriak ekipoa eta jokalaria behar ditu eta, horregatik, taldeak dena eman behar du kantxan". Zaleen artean, Dusko bera: "nire momentuko ekipo faboritua Tau da eta horrela izango da hemen egoten naizenera arte, eta joatean ere nire bihotzean izango da Tau bizitza osorako".

bezala sentitzen naiz"



alabek hitz batzuk badakizkitez..., baina niri gustatu arren, ez dut astirik egiteko, dena den, zaila litzateke...

-NOIZKO EUROPA ESTATU BATUEN PARE?

-Ez pentsa maila desberdintasun handirik dagoenik, Europako saskibaloiko maila ez da batere baxua eta hainbat talde europar estatubatuarren pare daude jada...

-ZURE HERKIDEEK GAZTEKIN LAN UGARI EGIN OHI DUTE, ETA HORRI ESKER BERTAKO SASKIBALOI EKIPOETAN GAZTE ASKO DAGO, ESATERAKO, BELGRADOKO PARTIZEN TALDEAN EDOTA ZAGREBEKO ZIBORA TALDEAN; BASKONIAN, BERRIZ, EUSKALDUN-ESKASIA DAGO...

-Saskibaloian hainbat ezaugarri beharrezkoak dira, hala nola altuera, eta Gasteizen hau arazo larria da; Jugoslavian, oster, kaleitik bi metroko jende ugari ikusten da seguraski saskibaloian inoiz aritu ez dena..., hala eta guztiz ere, harrobiko jokalariek lan egin

behar dute; gerta daiteke altuak ez izatea, baina lan ugari eginez gero atera daitezke Tau bezalako talde batera, hori bai, ziurrenik ez dira pibot izango.

-AMETS PROFESIONALIK?

-Amets asko dago, baita bizitza pribatuan ere, baina sekretua ez bada ez da amets ona.

-ETA ERREGE KOPA NOLA IKUSTEN DU IVANOVICEK?

-Oso zaila, gainontzeko partidua baino zailagoa da lortzea, zeren eta ondo jokatzear gain Kopan zortea ere behar duzu...

-ZURE AZKEN OPORRAK?

-Azkenak... gabonetan, bi egun eta erdi nituen eta Tenerifen igaro genituen; hauen aurrekoak Montenegron eman genituen familia bisitatzen.

-OPOR GUTXI ZUENAK...

-Bai, hilabete osoa dugu abuztuan eta orduan horietako irla paradisiako batera joaten saiatzen gara, Karibera edo, eta bertan bi, hiru aste ematen ditugu.

IRITZIAK DANTZAN

Zale eta aditu, baina oro har hainbat gasteiztarrek Baskonia eta Ivanovicen lanari buruz zein iritzi dioten jaso nahi izan dugu:

"Tau-n bertako jende gutxi eta kanpoko jokalaria asko daude; taldeak nahiz entrenatzaileak euskal jokalariaiek lortzen lan handiagoa egin beharko lukete, ikustatu eta jende gaztea bilatu, harrobitik ateratakoak..., dena den, Ivanovicek lan ona egiten du".

Didier Lazaro, ingeniariartzako ikaslea, 24 urte.

"Taldea ona da, egun txarrak eta onak ditu, azkenengo partidua hauetan lan ona egin du, Caprabo Lleidan izan ezik, horiekin bi partidua galdu egin baititu, baina Euroligan oso ondo dabil".

Leire Troyas, 13 urte, ikasle eta Baskonia-ko zale amorratua.

"Nabaritzen da sakibalioia oso gustuko duela eta jokalaria zeneko garaietan bere buruari eskatzen ziona eskatzen diola egun taldeari, uler daiteke bere seriotasuna eta jokalariei lan gehiegi eskatzea, bere buruari eskatzen zion beste. Bestetik, ez dakit zenbat denbora egongo den Gasteizen, baina tituluak irabazi ahala talde handi batek eramango dituela antzeman daiteke".

Jon Rejado, kiroletako kazetaria, 24 urte.

"Oso entrenatzaile gogorra da, lan handia eskatzen die bere jokalariei, baina oso talde bateratua dela antzeman daiteke, tentsioa mantentzen duen horietakoa".

Patxi Gomez, administrazioko langilea, 30 urte.

ENTRENATZAILEAREN BURUHAUSTEAK

Asko dira Ivanovicen iritzi entrenatzaileak konpondu beharreko arazoak eta trabak: "Batzuetan gauza txikiak, ezer ez diruditen arren, buruhauste garrantzitsuak izan daitezke ekipoa nahiz niretzat, eta gerta daiteke arazotxo hori partida bakar batean agertzea edota denboraldi osorako. Beraz, jokalaria zarenean zaila izan daiteke konpontzea, baina entrenatzailea zarenean problema gehiago dituzu, erantzuna ez baituzu zuretzat soilik aurkitu behar, talde osoarentzat baizik, eta konpontzen jakin beharra daukazu, edo zertarako prest egon behar duzu".

Argi dago Dusko Gasteizen dagoenetik eki-poaren ibilbidea hobetu dela eta gizon honek bere jokalariei eskatu lanak bere fruituak erein dituela. Duskoren eredia bere entrenatzaile ohia Bozidar Maljkovic izan daitekeela aipa dezakegu, "berarekin titulu ugari irabazi genituen, oso entrenatzaile ona da, Europako titulu asko daramatzana bere baitan, eta gainera jokalaria nintzenean berarekin egin adiskidetasuna egun ere mantentzen dut".


KOZKORTUZ



ESKU
HARTU

KOZKORTUZ BERRIA MARTXAN... ADI UMEAK

HAU DUZUE ZUEN KONTUTXOETARAKO TXOKO ZUZENA:



- MARRAZKI BAT,
- PROPOSAMENAK BILTZEN DITUEN GUTUNIK,
- OLERKI EDO BERTSO BAT,
- IPUIN BAT,
- ASMAKIZUN BAT,
- ERREZETA BAT,
- KOMIKI BAT,
- ZUEK EGINDAKO ARGAZKI BAT...

...BIDALI NAHI DIGUZUELA?



Edota KOZKORTUZ
irakurtzen duten beste
umeak agurtu, lagun berriak
egin nahi dituzula?

HEMEN DUZUE AUKERA!!!



*Lanekin batera, izen-abizenak eta urteak zehaztu (nahi baduzue zuen argazkia ere bidal dezakezue) eta postaz edo e-postaz igorri, hilaren 15a baino lehen.

INAUTERIEI

Testua eta argazkiak: Edurne Begiristain



Pantera Arrosek ez zuten inauterietan hutsik egin nahi izan



Samuraiak edo ninjak, zer ote diren oso argi ez dago, baina zein txintxo jarri diren argazkirako, ezta?



"Galaxietako guda" filma asko gustatu ei zaio jendeari, hemen dituzue jarraitzaile sutsu horietako batzuk...



Nork ez ditu gogoko Asterix eta Obelix-en abenturak?



A ze pare! Inauteriak ez balira bi emakume eder direla pentsauko genuke...



Festak eta aldarrikapenak bat egin dute aurten. Kanpo zorra kentzeko mozorroa duzue hau



Heidi, erdi aroko neskatxa bat, kantinera..., auskalo!



Antza denez, neska lumadun hauei lotsa ematen zien gure argazkian ateratzeak eta bizkarra eman ziguten



Ihauteriak izan ala ez meriendak ez du barkatzen

SO EGINEZ



Ea, ea... umeak, jar zaitezte ongi argazkirako!



Pezeta faltan botako ote?



Eskoziar bat bere alaba tximele-tarekin jolasean



Hau da hau nahasketa bitxia! Marinel bat otartekoa jaten eta mexikar ilehori bat!



Udazkena, negua, uda-berria, uda... Urtaro guztien artean txiki honek eguzkia nahiago!



Pokerrez jantzitako gizon honek goxoki mordoak opartu zikigun, zortea banatzen ariko ote zen?

Aurtengoan Gaztetxeak izan du lekuri inauterietako desfilean. Verano Azul telesaila gogoratzuz, Gasteizko karrikak zeharkatu zituzten txalupa handi batekin. Telesaileko kide guztiak han ziren eta "No, no, no, no nos moveran..." kanta ospetsua abestu zuten. Beraien atzetik, La Gaviota- Servicios inmobiliarios zioen malecina eskuan zutela espekulatzailak joan ziren, "Gaztetxea kanpora" uneoro garrasi egiten zutela. Mozorro irudimentsua eta orijinala, dudarik gabe.

"UDA URDIN"

"VERANO AZUL" telesailaz jantzita ateratzearen ideia azaroan burutatu zitzairen eta desfilean ateratzeko epea bukatzeaz zegoenean eman zuten izena.

Txalupa denbora gutxian egin zuten, bi asteburutan hain justu ere. Eta gainera barkua eramateko atoiak arazoak eman zizkien, izan ere barkuak pisu handia zuen eta ezin zezakeen eraman. Azkenean, Gaztetxeako kide baten aitak atoi bat egin zien eta berau erabili zuten.

Mozorroari dagokionez, zerbait erraza izan behar zuela argi zuten (jende asko joango zelako) eta enpresari trajea eramatea otu zitzairen...

Entseiei dagokienez, birritan baino ez zuten entseiatu. Horretarako "deialdi publikoa" egin zuten Alde Zaharreko tabernetan (kartelak jarritz) eta ehun lagun inguruk eman zuten izena.





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
 Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
 e-mail: errotadental@euskalnet.net



IRAGANEKO GATAZKA EDO EGUNGOA ORAINDIK ERE?

Munduak bizi omen duen krisi ekonomikoak uste baino eragin handiagoa izan dezake eguneroko bizitzan, Gamesako krisiak erakutsi duenez. Izan ere, 2001. urtea ezin hobeto hasi zuen Gasteizen lantegia duen enpresak, aurreko urtean 69 milioi euro (11.452 milioi pezeta) irabazi zituela iragarritz eta ekaina arte salmenta handiak eginez. Ekainean, aldiz, mundu mailako ekonomia-ren hazkundera moteltzen hasi zela nabaritu egin zuten GPAn (Gamesa Producciones Aeronáuticas) eta aldi baterako kontratuak zituzten langileak kalean geratu ziren.

EUROAK SOBERAN,

**DEFENSA DE NUESTRO PUESTO DE
TRABAJO
DESPIDORIK EZ!**

LANGILEAK ERE BAI

Leire Lopez de Aberasturi

Lehenengo kaleratzeak gertatu zirenetik langile borroka klasikoaren hasiera, garapena eta amaiera bizi izan dute Gamesan. Hasieran, enpresak 183 langile kaleratzeko asmoa agertu zuen. Garapenean, mobilizazioak, lanuzteak, negoziazioak, erakundeen bitartekaritza eta sindikatuen arteko liskarrak izan ziren. Eta amaieran, Gamesak 183 langile kaleratu zituen... 115 berriro hartzeko konpromisoarekin.

Hasiera batean negoziaketa eta mobilizazioek aldi baterako kontratua zuten langileentzako baldintza hobeak lortzea posible egingo zutela bazirudien ere, sindikatuen arteko ezadostasunak eta enpresaren jarrerak 68 lagun utzi ditu kalean inolako babesik gabe. Sindikatuen arteko liskarrean, ELA, UGT eta CC.OO.k enpresaren aldeko jarrera hartzea leporatu zieten LAB eta USOri, Gamesarekin akordioa lortu zutelako. LAB eta USOk, berriz, adostutako proposamenak onartzekotan kaleratutakoen egoera hobe izango zela azpimarratu zuten, batez ere aldi baterako kontratua zeukatenena.

Iazko esperientziak dioenez, ondo hasten den urtea ez da zertan berdin amaitu eta krisi ekonomikoak Gasteiz eta Araban izango duen eragina aurreikus-tea zaila da. Momentuz, zenbait sektoretan salmentak dextente jaitsi direla egia da, antza. Horregatik, zenbait enpresatan lan orduak murriztu dituzte eta aldi baterako langileen kontratuak berriztu gabe utzi.

2002. urteak emango duena zail da jakiten, baina Gamesako gatazkaren ondoren galdera batzuk erantzunik gabe geratu dira. Adibidez, emakumeak langileen %30 badira, zergatik dira kaleratutakoen %60? Eta, izugarizko dirutza irabazten duen enpresa batek arazo puntual bat duenean, langileak kalertzeari al da konponbide bakarra? Urtean zehar izandako borrokaren datu zehatzekin, galdera gehiago sor daitezke...

✓ **Uztailaren 6an**, San Fermin bezperan, azken bi asteetan Gamesak 25 langile kaleratu zituela salatu zuten sindikatuek.

✓ **Abuztua** lasai antzean igaro eta gero, aeronautika sektorearen krisiaz hitz egiten hasi ziren enpresari eta erakundeak, batez ere irailaren 11ren New York-eko erasoak eta gero. Hilaren 20an, erasoak eta 9 egunetara, krisiaren eraginez plantila "egokitu" beharra aipatzen hasi zen Gamesa. Ekainetik aurrera salmentak dextente jaitsi zirela onartu dute sindikatuek, baina irailaren 11n gertatutakoak enpresei hainbat neurri hartzeko "aitzakia" eman ziela ere salatu.

✓ **Urriaren 23an** 183 langile (115 finkoak eta 68 aldi baterako kontratuarekin) kalera-tuko zituela iragarri zuen Gamesak.

✓ **Urriaren 24an** langileek astearte-ostegunetan lanuzteak egitea erabaki zuten protesta gisan eta enpresaren egoeraren datu zehatzak eskatu zizkieten zuzendaritzari.

✓ **Urriaren 30ean** Gamesa eta enpresa komitearen arteko bilerak hasi ziren.

✓ **Urriaren 31a**. Lehenengo lanuztea.

✓ **Azaroaren 12an** Gamesako zuzendaritzak proposamen berria luzatu zien langileei: kaleratutako langile finkoak bederatzi hilabete geroago berriro hartzea eta langabezian emandako hilabeteetan soldata osoa ordaintzea.

✓ **Azaroaren 14an** ELAk bere proposamena zabaltu zuen. Kontratu finkodunak kalertzeari onartu zuten, epe bat bete eta gero berriro hartzekotan.

✓ **Azaroaren 21ean** LAB sindikatuak beste testu bat aurkeztu zuen, USOren laguntzarekin. Hasiera batean zuzendaritzak ezezkoa eman bazion ere hurrengo egunean onartu zuen.

✓ **Azaroaren 29an** buruturiko langileen asanbladak ez zuen LABek eta USOk lortu akordioa onartu eta ordura arte egondako adostasun sindikala hautsi egin zen. Asanbladaren giroa oso zakarra izan zen, batzuen iritziz eskirolek botu eman nahi izan zutelako, besteen ustez ELAk, UGTk eta CC.OO.k bozketarik nahi ez zutelako.

✓ **Abenduaren hasieran** Gamesaren barruan dauden Moasa eta Foasara zabaldu zen krisia. 70 langile kaleratu zituzten.

✓ **Abenduaren 12an** langileek ezezkoa eman zioten LAB eta USOk sinatutako aurreakordioari eta mobilizazioekin jarraitzea erabaki zuten. Gamesak negoziaketa amaitutzat eman eta kaleratutakoen zerrenda aurkeztu zuen.

✓ **Abenduaren 19rako** zerrendetan zeuden gehienek enpresak erabakitakoa onartu zuten.

✓ **Abenduaren 28an** kaleratzeak ofizialki



✓ **Abenduaren 5ean** Eusko Jaurlaritzak LAB eta USOren proposamenean oinarritutako testua bidali zion enpresari.

✓ **Abenduaren 10ean** gertatu zena nahiko ilun dago. Antza denez, ELA eta CC.OO.ko ordezkariak Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin bildu ziren, komiteari ezer esan gabe proposamenean zenbait aldaketa erdiesteko asmoz. Jaurlaritzak ez zituen eskakizunak onartu.

onartu ziren, baina Lan Delegazioak kaleratu langile finkoak sei hilabeteren buruan berrartzeko agindua eman zion Gamesari.

✓ **2002. urteko urtarrilaren 3an** mobilizazioak uztea erabaki zuten beharginek.

✓ **Urtarrilaren 14an** Gamesak Airbus etxearekin 540 milioi euroko kontratua sinatu zuela zabaldu zen. Sindikatuek kontratua aurretik sinatuta zegoela salatu zuten.

ORGANOEN MUNDURAT, Floren Unzuetaekin



ZUREZKO ERRALDOI HORIEK

Organoa ez da, ez, gaur egun musikaren olatuaren goialdean dagoen musika tresna horietariko bat. Baina, hala ere, askok pentsatuko dutenaren kontra, ez dago ahaztuta. Arabako herrietan zehar barreiatuta berrogei organo inguru dago eta urte batzuetatik hona, Arabako Foru Aldundiak bultzatuta, horien berriztatze eta konponketa martxan dago. Oraindik ere egiteko lan handia gelditzen den arren, besteak beste, Arabar Errioxako askoz gain, Aramaiokoa, Legutiokoa eta Aguraingo organoak ditugu berriztatu diren azkenak.

Euskal Herrikoen artean, Arabako organoen bilduma xumea da, baina Europako organo barrokorik garrantzitsuenetarikoa bertan izatea ez da gauza gutxi. Horregatik, ez legoke gaizki erraldoi zahar horien historian zertxobait sakontzea.

Ainhoa Ferron

SINPLETASUNAREN XARMA

Nahiz eta bakoitzak bere ezaugarri bereziak dituen, Araban bi mota desberdinetako organoak daude. Horietako bat organo barroko edo iberikoa da. Benetan bitxiak, iberiar estiloko organo hauek ez dute zerikusirik beraien garaian Europan egin ohi ziren organo miresgarriekin. Europako horiek baino askoz sinpleagoak, garai hartako musikari espainiarren piezak jotzeko oso egokiak suertatzen diren arren, klabe bakartasuna eta pedalieraren falta dela eta, hauekin ezinezkoa suertatzen da Bach bezalako XVII-XVIII. mendeko konpositore europarren musika jotzea. Mota honetakoak dira, hain zuzen ere, gaur egun Arabar Errioxako herrietako elizetan dauden organo gehienak. Eta, horien artean, onenetakoa Labastidakoa dugu; hori da, behintzat, Europa osotik horretan grabatzera etorri ohi diren izen handiko organojoleek eman dioten ospea.

Ameriketara joandako indianoen dirua Euskal Herrira etorri zenean, garapen industrialarekin batera, une horretara arte egiten ziren organo xume hauek ere guztiz garatu ziren. Eta, orduetik aurrera, Euskal Herriko organoek mota iberikokoak izateari utzi eta Europakoen estilo erromantikoari leku egin zioten. Baina hazkunde ekonomikoa ez zen Euskal Herri osoraino neurri berdinean iritsi. Arabar Errioxaren egoera oso gutxi aldatu zen eta, ondorioz, organogintzak ere bere horretan iraun zuen. Horra hor Euskal Herriko organo barroko zaharrenak, bakarrak eta bitxiak Araban egotearen arrazoia.

“XVIII. mendeko musikagileak gogoko ditut”

• ZERGATIK ORGANO?

Nire bizitza elizarekin oso loturik egon da, apaiza izan naiz eta. Seminarioan musika, pianoa eta organo pixka bat ikasi nuen, baina gero, garai hartako egoerak bultzatuta, filosofia eta soziologia ikasketak egin nituen eta musika alde batera utzi nuen. Urte askoren buruan, behin ezkondu ondoren, emazteak nire benetako zaletasuna den musikaren bidea berriro hartzeko animatu ninduen. Eta horixe egin nuen...; hamabost urte daramatzat organoa jotzen.

• EZ DUZU ETXEAN ENTSEIATUKO, EZTA?

Ba, bai. Etxean organo txikitxo bat daukat eta gauero ikasten dut. Kristalezko kutxa batean sartuta dagoenez ez dut inor molestatzeko... nire emaztea izan ezik. Organo sinplea da, zazpi erregistro eta berrogei tutu ingurukoa. San Pedro elizakoak bi mila tutu baino gehiago dauzka...

• ZEIN DA GAUR EGUN ORGANOAREN TOKIA MUSIKAREN MUNDUAN?

Urte batzuetan ahaztuta egon da, baina orain jendeak, berriz, organoaren soinua entzuteko ilusioa berreskuratu du. Kontzertuak ematen direnean jende asko eta gazte asko biltzen da; egoera onean dagoela uste dut. Hala ere, oraindik ezinezkoa da organojole batentzat honetaz bizi-

tzea. Hemen organoa beste lan batekin tartekatu behar da beti eta hori ez da gertatzen ez Holanda, Frantzia edota Alemanian. Han organojoleak bere soldata dauka eta jotzen eta ikasten bizi daiteke. Hemen, oster, gutxi gaudenez, handik hona ibiltzen gara; eta hori gure lanarekin batera, ez dugu atsedenik! Araban, halere, jende gazte nahikoa dago organoa ikasten eta etorkizun onekoa, gainera; Ibai Oiarzabal, esaterako, ospe handia hartzen ari da Europan...

• NAHIKOA AL DA ARABAKO ORGANOAREN-TZAT ERAKUNDEETATIK EGITEN DENA?

Onartu behar da Aldundiak lan handia egin duela berriztatzeari dagokionez, baina oraindik lan handiagoa gelditzen da egiteko. Gero ere, ondo legoke, Gasteizen auditorioa egiten bada Udalak organo on bat

jartzea. Bilboko Euskalduna-ko organoak asko bizitu du gure tresna, kontzertu nahiko egiten dira, mundu osoko organojoleak joanez, eta hori oso garrantzitsua da.

• ZER BEHARKO LUKE ORGANOAK JENDE-ARENGANA GEHIAGO IRISTEKO?

Kontzertu gehiago bultzatu beharra dago. XVIII. mendeko musikak jendea erakartzen jarraitzen du eta hori gehiago suspertzeko kontzertu gehiago behar. Hasieratik organoa elizari loturik egon da eta ezagutarazteko hortik atera ere atera behar da.

• ZEOZER BERRIA EGITEN ARI AL DA ORGANOAREN-TZAT MUSIKAN?

Bai, gaurko konpositorak musika modernoa ere egiten ari dira, organo estilo berrietara egokituz. Jende gazteenak estilo berri horietarantz jotzen du, baina niretzat horrek buruan zerbait aldatzea eskatzen du eta nire adinean ez nago prest; ni XVIII.

mendekoein gelditzen naiz: Brahms, Mendelssohn, Schumann, Bach, Hindemith... Dena dela, egia da organoan konposaketa aurrera doala, beste tresna gehienekin gertatzen den bezala.

**“Ondo legoke,
Gasteizen
auditorioa
egiten bada
Udalak organo
on bat jartzea”**



Aramaioarrak Nazioarteko Kontzertuetan parte hartu izan du. Ezkerraldean bere etxeko organotxo

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER AIZPELEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

Zure denda erotikoa

SEX



Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN


adaka 
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ



AZKENA,

Denbora gutxi behar izan da Azkena izena denon ahotan egoteko. Ia gasteiztar orok, musika gustuko dutenek bederen, ezagutzen dute

Gasteizen ireki berri den lokala. Ez da diskoteka bat, ezta taberna bat ere, "leku irekia" dela dio Javi Arnaiz Azkena Gasteiz-eko sustatzaileak, "jarduera mota guztietara irekitako tokia" alegia.

azkenean,

GAS TEI ZEN

Edurne Begiristain

Iragan abenduaren 14an zabaldu zituen atean jada Gasteizen erreferentzia bilakatu den lokal berriak. Azkena Gasteiz izena dauka eta Bilboko Azkenaren anaia dela esan dezakegu. Javier Arnaiz galdakaotarra da lokalaren koordinatzailea eta berak definitu digu zer den Azkena: "gure asmoa da jende mota guztiari irekitako tokia izatea eta era guztietako jarduerak egitea bertan". Argi utzi nahi du ez dela diskoteka bat, ezta taberna soil bat ere. "Diskoteka deitzea ez zaigu batere gustatzen, hemen jartzen dugun musikak ez duelako zerikusirik diskoteketan jartzen denarekin", diosku. Gainera diskotekekin alderatuta, Azkenan ez da sarrerarik kobratzen (ez momentuz behintzat), eta horrek ere diskoteketatik bereizten duela iritzi dio Arnaizek. "Gasteizko Alde Zaharraren barruan dagoen beste lokal bat da", azaltzen digu.

Alde Zaharraren barruan kokatzea agian gehiegi dela pentsatuko dute batzuek (Koronazio -Koroatzearen-kalean baitago), baina asteburuetan Azkenara doan jende mordoak ikusita ez da hain arraroa halako definizioa entzutea.

KONTZERTUAK BAINO ASKOZ GEHIAGO

Azkena Gasteiz zerbaitengatik eza-guna egin bada, bertan izandako kontzertuengatik izan da, ezbairik gabe. Izen handiko taldeak aritu dira jotzen bertan, eta horrek jende asko erakarri du, baita Euskal Herrikan kopioa ere. Aurreneko kontzertua Potato talde gasteiztarrarena izan zen, izugarritzko jendetza bildu zelarik reage doinuaz gozatzeko gogoz. Inaugurazio ezin

hobe horren ostean, maila handiko musikari batek bisitatu zuen Azkena: Mark Lanegand, Kurt Kobain Nirvana talde mitikoaren abeslariaren lagunak. Hortik aurrera, estilo guztietako taldeak izan dira: Fundación Toni Manero, Segismundo Toxicómano, Fito y los Fitipaldis, Fangoria, Obus, Red House... Dudarik ez dago, beraz, ostiral eta larunbatero musika apartaz gozatzeko aukera dagoela Azkenan. Arnaizen iduriko, "oso kontzertu inportanteak egiten ditugu, musika sustatzaile ona baitauekagu eta gure

"Gure asmoa da Bilbo, Bartzelona eta Madrilekin batera, Gasteiz ere musika talde askoren biretan sartzea"

asmoa da Bilbo, Bartzelona eta Madrilekin batera, Gasteiz ere musika talde askoren biretan sartzea".

Alabaina, kontzertuez gainera, beste-lako proiektuak ere martxan jarriko direla adierazi digu Arnaizek. Orain artean asteburuetan baino ez zen irekitzen lokala, baina hile honetatik aitzina egunero egongo da zabalik, izan ere, jantokia eta umeentzako ekitaldiak izango dira hemendik aurrera Azkenan aurkituko ditugun eskaintza berriak. Bilboko Azkenaren formato bera lortzea da helburua, eta horretarako goizeko zortzietatik goizaldeko seiak arte zabalik izango dute. Jantokia da eskaini nahi duten aurreneko zerbitzu berria, gainera, menu berezia



eman nahi dute. Bestalde, Gasteizko Udala eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, haurrentzako antzerkia, pailazoak, txotxongiloak eta bestelako ikuskinak antolatuko dituzte igandero. Baina Azkenaren eskaintza ez da hor bukatuko, ostegunero unibertsitarioei zuzendutako jaia ere egingo baitira.

AZKENA, LEHENA DA JADA


Zalantzarik gabe indar handiz ekin dio Azkena Gasteizek Arabako hiriburuan, eta hori "poztekoa" dela dio Arnaizek. "Oso ongi hasi gara eta izugarri pozik gaude, hala ere, gure asmoa horrela hastera zen; bi hilabete t'ardi daramatzagu eta eman dezakegunaren %40 baino ez dugu eskaini oraindik". Aitzitik, Arnaizek onartzen du ez dela batere erraza Gasteiza musika taldeak ekartzea eta, horregatik, Azkena egiten ari den ahalegina itzela da. "Musika sustatzaileek dezentepentsatzen dute talde bat Gasteiza ekarri baino lehen, ez omen delako



AZKENA GASTEIZ DATOZEN KONTZERTUAK

- ✓ **MARTXOAK 8 (OSTIRALA)**
AMPARANOIA (Bilbo, Iruñea eta Donostiako emakumeen taldeek autobusak antolatu dituzte)
- ✓ **MARTXOAK 9 (LARUNBATA)**
THE ROMANTICS (Detroit/EEBB)
eta BONDAGE
- ✓ **MARTXOAK 23 (LARUNBATA)**
THE FLAMING SIDEBURNS (Finlandia)
eta SURFIN LUNGS (Erresuma Batua)
- ✓ **APIRILAK 26 (OSTIRALA)**
FLACO JIMENEZ (Mexiko)
- ✓ **MAIATZAK 11 (LARUNBATA)**
THE BREEDERS (EEBB)
- ✓ **MAIATZAK 18 (LARUNBATA)**
DOCTOR DESEO
- ✓ **MAIATZAK 23 (OSTEGUNA)**
BUNBURY
- ✓ **MAIATZAK 24 (OSTIRALA)**
O'FUNK'ILLO
- ✓ **EKAINAK 8 (LARUNBATA)**
HAMLET

(*KONTZERTU GUZTIAK 21.00etan HASIKO DIRA)



leku oso ona, baina Azkenara ekartzen ari garen taldeak oso gustura geratzen ari dira eta oso pozik daude", azaltzen digu.

Dena dela, bai musikariak bai Azkenara doan jendea gustura gera daitezten, aurretik lan itzela egin behar izan dute. Lokala goitik behera berritu eta hosgabetu dute, eta leku erakargarri eta moderno utzi dutela esan daiteke. "Kontuan hartu behar da, gainera, lokal horrek aurretik ez zuela oso izen ona, (Vinilo eta La Isla dikotekak egon ziren bertan), baina buelta ematea lortu dugu", iritzi dio Javik. Bere aburuz, "beharrezkoa" zen halako toki bat egoitea Gasteizen, Alde Zaharreko tabernez gain, diskotekak baino ez zeudelako hemen. Gauzak horrela, lokala bilatu, hau ikusi eta asko gustatu zitzaenez, pausoa ematea deliberatu zuten. "Jende askok diosku bazela garaia gisa honetako toki bat irekitzeko", azaltzen digu. Bada, jendeak hori badio, bete-betea asmatu dute.



batasuna

bakea konponbidea

AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA EUSKAL HERRIARENTZAT

Xabier taberna

**musika ona
eta giro ezin hobea**

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

vitrales



**BEIRATE
ESTUDIOA**

**MIKEL
DELIKA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ



**"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"**

**IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO • 01478 ARABA**

Tel/Faxa: 945 396 686

www.euskalnet.net/eskutxi

E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADMIKOAN
%0a

**CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

**CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA**



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz

Tel-Fax: 945 26 46 43

iturrieta
Sagardotegia

TXOTX GARAIARI HELDU!

**BETIKO SUKALDARITZA
INGURU ZORAGARRIAN**

**OSTEGUNETIK IGANDERA
10.00etatik aurrera**

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

GEU ALDIZKARIAREN ETXEZ ETXEKO HARPIDETZA KANPAINA



Harpidetzak eta publizitatea dira Geu aldizkariaren etorkizunaren bermea...

...Hau dela eta, aurtan "Etxez Etxeko harpidetza kanpainari" hasiera eman diogu. Ania Ibisate eta Oskar Ugarte gazteak ariko dira atez ate behar ditugun harpidedun berri horien bila... Gutxienez 500 harpidedun berri lortu nahi eta behar genituzke proiektua gutxinaka-gutxinaka sendotzeko, eta 1000 balira askoz hobeto!!!

**EMAN DIEZAIEGUN ONGI ETORRIA, BERAZ,
ANIA ETA OSKARRI,
ETA ETXEZ ETXEKO HARPIDETZA KANPAINARI!!!**

Eta zu, harpidedun, Geu aldizkaria etxean jaso nahiko lukeen norbait ezagutuz gero, esaguzu eta berarekin harremanetan jarriko gara!!!

JAKIN BADA KIGULAKO GASTEIZEK ASKOZ GEHIAGO EMAN DEZAKEELA!

**HARPIDEDUN BERRIENTZAKO OPARIA:
"TXEROKIREN TXORAKERIAK" LIBURUA
HARPIDETZA-ZOZKETAN PARTE HARTZEA:
asteburu bat nekazal-turismo etxe batean,
afari bat...**

**"GEU ALDIZKARIKO
HARPIDEDUNA
IZAN NAHI DUT"**



IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

**KONTU KORRONTEA (20 DIJITOAK)
+ TITULARRAREN IZENA**

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

***URTEKO KUOTA: 15 euro**

GEU ALDIZKARIA (G-01125392)
PEDRO ASUA KALEA, 2-3.a-01008-GASTEIZ.
Tfnoa.-Faxa: 945222153
e-posta: geugaste@grn.es

PARRAL TABERNA. MARTXOKO AGENDA

- 5EAN: SUPERLIGEROS (GASTEIZ)
- 12AN: SABOT (INGELESAK, HARD-CORE ESPERIMENTAL-INSTRUMENTALA)
- 26AN: KULTUR ERROTA-02 (GEU ELKARTEAREN ESKUTIK). MARTXOAREN 26AN, ASTEARTEA, 20.30ETAN: "EUSKARAZ DIBERTITZEKO MANERAK" KIKE AMUNARRIZ ETA ASISKO URMENTA

ORDUA: 20.30ETAN

adi HIKAATENEOko MARTXOKO agendari!!!

(GUNE SOZIOPOLITIKOKULTURALA)
PINTO KALEA, 13 (LEHENGO ZULOA LIBURUDENDA)
EKITALDIAK HILERO: ERREZITALDIAK, HITZALDIAK, BIDEO EMANALDIAK, MINTEGIAK, MAHAINGURUAK...

EUSKAL JOLASEN BILDUMA. URTXINTXA ESKOLA

(ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA)

- IRAKASLE, GURASO, HEZITZAILE ETA HAURREI ZUZENDUA
- 50 JOLASEN FITXA TEKNIKOAK (JOLAS GUZTIAK MARRAZKI BIZIDUNETAN IRUDIKATUTA), 28 ABESTI, TORTOLOXEN JOLAS INTERAKTIBOA (EUSKAL JOLAS TRADIZIONALEAN OINARRITUTAKO DENBORA-PASA INTERAKTIBOA)
- *ESKAERAK. 943270033. E-POSTA: GIPUZKOA@URTXINTXA.ORG (WWW.URTXINTXA.ORG)
- EUSKARAZ JOLASTEN IKASTAROAK
- ANTOLATZAILEA: HIK HASI (EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA)
- INFORMAZIOA: HIK HASI (943371408)-HARKAITZ (943361476)-LEIRE (943457394)
- E-POSTA: EUSKARAZJOLASTEN@EUSKALERRIA.ORG

GAUEKOAK-NEGUA 2002

KONTZERTUAK-ZINEA-KIROLAK-ZIBERRAK-ANTZERTIA-LAN-TEGIAK-ESTILOA-GAZTE KLUBA-KIDEAK-DIBERTSIOA
ALDABE GIZARTE ETXEA. URTARRILAREN 11TIK



MARTXOAREN 30ERA, OSTIRAL ETA LARUNBATERO
GAUEAN, 22.00ETATIK 2.00ETARA

GAUA GOZATU

WWW.GAUEKOAK.ORG

•GAUEKOAK IZOTZ PISTAN•

22.30ETATIK 1.00ETARA

2X1, IZOTZ GAINEKO DISKOTEKA, PATINAKETAN HASTAPENA, ETA ABAR...

IZENA EMATEKO ETA GONBIDAPENAK JASOTZEKO:
GAUEKOAK-EN, ALDABE GIZARTE ETXEAN, OSTIRAL ETA LARUNBATETAN (22.00ETATIK 2.00ETARA)

ERAKUSKETAK

SANTOS IÑURRIETA ARTISTA
ARABARRAREN ERAKUSKETA
BERRIA,
PINTURA EREMUA KASIK ATZEAN
UTZIZ ESKULTURA LANEAN MUR-
GILTZEKO
ZULOA-ESPAZIOAN, MART-
XOAREN 20RA ARTE

EUSKAL HERRIKO EUSKARAZKO WEB ORRIEN ZERRENDIA.

DONOSTIAKO UDALAREN
EUSKARAREN UDAL PATRONATUAK
ARGITARATUTA.
GAIK: DONOSTIA, BILATZAILEAK



**ESTATUTUA EZ DA GURE AGINTEPIDEA
ETA ESKUMENAK ZEHAZTEN DITUEN
AGIRI SOILA. ASKOZ GEHIAGO DA.
EUSKALDUNON BIZI-BALDINTZAK,
TALDE ZEIN BAKARKAKOAK,
HOBETU ALDERA DATORREN
EKINTZABIDEAREN ABIAPUNTUA DA.**

ETA HELBIDE ZERREN-
DAK, ERAKUNDEAK, EUS-
KARA, GIZARTE GALAK
ETA OSASUNA, HEZKUNT-
ZA, INFORMATIKA, INTER-
NET, JAKINTZA, KIROLA,
KONTSUMOA ETA EKONO-
MIA, KULTURA ETA
ARTEA, PRENTSA, IRRATIA
ETA TELEBISTA, TURIS-
MOA ETA AISIALDIA, ZER-
BITZUAK.
EDONORENTZAT BALIO-
GARRIA. INFORMAZIOA:
943424717 / E-MAIL:
UDALA_EUSKARA@DONO
STIA.ORG

SAIL BERRIA. SAIL BERRIA. SAIL BERRIA. SAIL BERRIA EUSKALGUNE, TOPAGUNE!

GEU ALDIZKARIAREN TXOKO BERRIA DUZU HAU:

EUSKALDUNOK, EUSKALTZALEOK HAN ETA HEMEN BATU GAITZAKEEN TXOKOA, GUNEA... ZURE PROPOSAMENETARAKO TARTEA!

"Euskaldunen arteko harremanak bultzatzeko eta euskaraz egiten diren ekitaldiak aurkezteko" ZURE TXOKOA!

Guk hileroko agendan dakarzkizuegun euskarazko ekitaldiez gain, ziur gaude askok eta askok ihes egiten digutela...

...Horregatik, GASTEIZKO EUSKARAZKO ESKAINTZA KULTURALARI DAGOKION GARRANTZIA EMAN NAHIAN, SAIL HAU IREKI NAHI IZAN DUGU, EUSKARAZ GOZATZEKO AUKERA GERO ETA ZABALAGOA IZAN DADIN.

BERAZ, ZURE AUZOAN, ESKOLAN, LANTOKIAN, ELKARTEAN, EUSKALTEGIAN... EUSKARAZ EDOTA EUSKARAREN ALDE EGINGO DEN EKITALDI HORRETARA GUZTIOK JOATEKO AUKERA IZAN DEZAGUN, BIDALI HONA INFORMAZIOA.

HAU DA ZURE GUNEA, GURE GUNEA, EUSKALGUNEAI

ORAIN HUTSIK DAGO... BETE DEZAGUN, BA!

MARTXOAK 8. ZORIONAK EMAKUME!

ADI MARTXOAREN 8AREN
INGURUKO EKINTZA ETA EKI-
TALDIEI!!

BESTEAK BESTE:

HITZALDIA: AFGANISTANGO

EMAKUMEAK: ORAINA ETA

GEROA

MONTEHERMOSO

KULTURUNEAN, MARTXOAREN

5EAN, 19.30ETAN

ANTOLATZAILEAK: FORUM

FEMINISTA "MARÍA DE

MAEZTU"

IIKA-REN UDABERRIA JAIA

*MARTXOAREN 22AN

9:00ETAN: TXOKOLATE JANA ETA KANTAK LAU EUSKALTEGIETAN.

10:00ETAN: FLORIDA ZINEMETAN FILMA, EURO BATEN TRUKE.

10:00ETAN: BIZIKLETA MARTXA, MENDIOLAKO SAGARDOTE-
GIRA.

10:00ETAN: EUSKALTEGIETAN.

10:30EAN: ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZAN.

11:15EAN: MENDIOLAN.

15:30EAN: TARTA TXAPELKETA HIRU EUSKALTEGIETAN.

16:45EAN: FLORIDA KULTUR ETXEAN, MARRON MENDIZALE
OSPETSUAK MONGOLIAN ZEHARREKO BIDAIA ZORAGARRIA
IZENeko KONTAKETA EGINGO DU. HORREKIN BATERA, DIAPO-
SITIBA EMANALDI IKUSGARRIA IZANGO DUGU.

18.00ETAN: FLORIDA ZINEMETAN FILMA, EURO BATEN TRUKE.

20:30EAN: GAZTETXEAN... SEKULAKO JAIALDIA.



Afganistango Emakumeak:
Oraina eta Geroa

Mujeres en Afganistán:
Presente y Futuro

Hizlariak / Ponentes:
Mónica Bernabé
Miembro de HAWCA Catalunya,
Asociación de Apoyo a las Mujeres y
las Niñas de Afganistán.

Ángeles Espinosa
Periodista de El País y corresponsal
en Afganistán.

Tokia / Lugar:
Centro Cultural Montehermoso

Kulturunes
Eguna / Día: Martxoak 5 Martxo
Ordua / Hora: 19.30

Antolatzaileak / Organismo:
Forum Feminista "María de Maeztu"
Babeslea / Subvenciones:
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz / Udala

FFM
Forum Feminista
María de Maeztu



arropa prezio ezin hobean

- txamarrak eta galtzak
- txamarrak forro polarrarekin
- forro polarrak
- lo zakuak
- motxilak eta petateak
- artisau arropa

ZURE EROSKETA EUSKARAZ
EGITEKO AUKERA PAREGABEA

Astelehenetik larunbatera
goiz eta arratsaldez IREKITA

KORRERIA KALEA, 118-BEHEA
TEL/FAX.: 945 135 859 / www.euskalnet.net/ekbisc

TINK

AAAH,
ZE POZAI!
EGUN EDERRA
IZEN BERRIA
ESTREINA
-TZECO ...

PSST,
MESEDEZ,
GAZTETXERA
JOATEKO?

BAAA..
ZOAZ ALDE
ZAHARRERA
ETA ...

EZ, EZ,
TOKIZ
ALDATU
ZUTEN ...

AH, BAI?
GLUPS!

BERDIN DA,
NIRE KABUZ
AURKITUKO
DUT ...

AI ENE,
GAZTETXEA,
ETXEBIZITZAREN
ARAZOA ...NOLA
BUKATUKO OTE
DA HAU?



JO, BA
PARKEAN ERE
EDERRA DAU-
KAGU!





ENVIOS Y DISTRIBUCIONES ARABA S.L.

BIDALKETAK ETA BANAKETAK

20 URTE GASTEIZEN

- **KORRESPONDENTZIA BANAKETA**
- **MARKETING ZUZENA**
- **LOGISTIKA ZERBITZUA**
- **MANIPULATZEA**

Ansoleta Industrialdea
Aratz kalea 22, behea
Tlfnoa.: 945 15 06 28
Faxa: 945 15 08 74
01006 GASTEIZ

E-posta: endistriaraba@euskalnet.net





HALABES
OPERAZIOA

halabelarri
385

halabelarri
402

halabelarri
297

halabelarri
259

halabelarri
304

halabelarri
5

halabelarri
069

halabelarri
511

halabelarri
218

halabelarri
321

halabelarri
303

halabelarri
098

halabelarri
131

hala bedi
IRRATIA

Hazte
halabelarri

Egin zaitez

www.halabedi.org